


# ***Bizkaiko populazioaren kirol ohiturak 2020.***

***Ispizua , Campelo***



 **Bizkaia**

*foru aldundia  
diputación foral*



### Bizkaiko populazioaren kirol ohiturak 2020. Ispizua , Campelo



## Bizkaiko populazioaren kirol ohiturak 2020. Ispizua , Campelo

### 1. POPULAZIOAREN DESKRIBAPENA, KIROLAREKIN LOTUTA



## Bizkaiko populazioaren kirol ohiturak 2020. Ispizua , Campelo



## 2. POPULAZIOAREN DESKRIBAPENA, INSTALAZIOEKIN LOTUTA

Biztanleen % 67 ez dira inoiz joaten kirol instalazio publikoetara, eta % 84raino heltzen da instalazio pribatuetara joaten ez direnen tasa.

Populazioaren % 80,8k diote etxetik kirol instalazio publiko hurbilenera oinez 15 minutu baino gutxiago dagoela, eta % 13,4k diote 15 eta 30 minutu artean dagoela.

Instalazio publikoei dagokienez, populazio osoaren %19,6k diote kirola egitera bakarrik joaten direla instalazio publikoetara; % 6k, aldiz, udan igerilekura joaten direla (edo eguzkia hartzerara), eta % 3,3k diote kirol ikuskizunak ikustera joaten direla.

Biztanleen % 29k uste dute ohiko instalazio gehiago behar direla, eta, gehienbat, igerilekuak (aire zabalekoak eta estaliak), aire zabaleko kirol anitzeko pistak eta aparailuen/muskulazioko gelak edo gimnasiako/zunbako edo pilateseko gelak.

Igerileku estaliak eta aire zabalekoak, gehien eskatzen dituzten ekipamenduak, bi kasuetan biztanleen % 8k eskatzen dituzte.

## Bizkaiko populazioaren kirol ohiturak 2020. Ispizua , Campelo



## 2. POPULAZIOAREN DESKRIBAPENA, INSTALAZIOEKIN LOTUTA

**% 31k** uste dute biztanleei espazio publiko gehiago eman behar zaizkiela, eta, batez ere, honako hauek eskatzen dituzte: bidegorriak (biztanleen **% 20k**), bideak eta zidorrak (% inkesta egin dutenen **% 11k**, guztira) eta parke bioosasungarriak eta kalisteniaokoak (azken horiek inkesta egin dutenen **% 4k** baino apur bat gutxiagok).

Udal instalazio publikoen kuotei dagokienez, **% 30ek** uste dute egokiak direla, baina **% 26** inguruk irizten diote altuegiak direla. Biztanleen **% 33k** diote ez dakitela zenbatekoak diren.

## Bizkaiko polulazioaren kirol ohiturak 2020. Ispizua , Campelo



### 3. EKITALDIETAN PARTE HARTZEA ETA KIROL BOLUNTARIOTZA

Biztanleen % 17k diote aholkularitza jasotzen dutela kirol praktika edo jarduera posibleen inguruan, % 21ek diote gustatuko litzaiekeela aholkularitza jasotzea, eta % 61ek uste dute ez dela beharrezkoa.

% 17,5ek erabiltzen dute jarduera fisikoarekin ea kirol jarduerarekin lotutako aplikazioen bat, eta % 14k uste dute erabiltzera heldu litezkeela. Antzeko iritzia dute webguneen erabileraren inguruan. % 7,5ek diote baten bat erabiltzen dutela, eta % 16k, erabiltzera heldu litezkeela.

Zentzu horretan, biztanleen % 47k uste dute administrazioak aplikazio espezifiko bat sortuz gero jarduera fisikoa egitea erraztuko litzatekeela.

## Bizkaiko polulazioaren kirol ohiturak 2020. Ispizua , Campelo



### 4. KIROLAREN BALORAZIOA

“Sasoi onean egoteko aukera” da gehien gustatzen zaiena Bizkaiko biztanleen % 45i baino gehiagori, eta harrera ona duten beste alderdi batzuk dira “on egiten duela, aldartea hobetzen duela” (% 13), “dibertsio eta entrenamendu giroa” (% 11,6) edo “erlaxatzeko balio duela” (% 10,8).

Biztanleen % 20k ez diote ezer txarrik ikusten kirolari, baina antzeko kopuru baten ustez okerrenea “kirol profesionala eta dirua” da; % 12k uste dute okerrenea lesioak direla (% 12,2), eta antzeko kopuru batek uste du okerrenea kirolarekin batera doan borroka eta lehia dela.

Aldeko jendearen ehuneko handiena duen esaldia (% 1era ez da heltzen ados ez dagoenen ehunekoa) da “Emakumezkoek egindako kirolak gizonek egindakoaren balorazio eta sustapen berbera izan beharko luke”.

Biztanleen % 90 oso ados daude esaldi honekin: “Kirola osasun iturria da, sasoi onean egoten laguntzen du”; eta % 80 baino apur bat gehiago ados daude esaldi honekin: “Tentsioak eta umore txarra askatzeko aukera ematen du”.

## Bizkaiko polulazioaren kirol ohiturak 2020. Ispizua , Campelo



### 5. KIROL AHOLKULARITZA

Biztanleen % 17k diote aholkularitza jasotzen dutela kirol praktika edo jarduera posibleen inguruan, % 21ek diote gustatuko litzaiekeela aholkularitza jasotzea, eta % 61ek uste dute ez dela beharrezkoa.

% 17,5ek erabiltzen dute jarduera fisikoarekin ea kirol jarduerarekin lotutako aplikazioen bat, eta % 14k uste dute erabiltzera heldu litezkeela. Antzeko iritzia dute webguneen erabileraren inguruan. % 7,5ek diote baten bat erabiltzen dutela, eta % 16k, erabiltzera heldu litezkeela.

Zentzu horretan, biztanleen % 47k uste dute administrazioak aplikazio espezifiko bat sortuz gero jarduera fisikoa egitea erraztuko litzatekeela.


**Bizkaiko  
polulazioaren kirol  
ohiturak 2020.  
Ispizua , Campelo**



**Bizitzan zehar kirolarekin harremana izan duten gurasoak dituztenek kirol ohitura sendoagoak dituzte.**




**Bizkaiko  
polulazioaren kirol  
ohiturak 2020.  
Ispizua , Campelo**



Euskara jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan erabiltzeari dagokionez, interesgarria da kirola instalazio publikoetan egiten dutenek gehiago erabiltzen dutela euskara. Halaber, bi hizkuntzak berdin erabiltzea ohikoagoa da kirol arautuan edo gidatuan, eta joera horrek gora egiten du talde gazteenetan; halako zerbait gertatzen da entrenatzaileekiko harremanetan ere.

## Bizkaiko polulazioaren kirol ohiturak 2020. Ispizua , Campelo



## 7. EUSKERA

### 4.7. EUSKARAREN ERABILERA ETA JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Interesgarria iruditzen zaigu jakitea zein hizkuntza erabiltzen duten jarduera fisikoa eta kirol jardueran egiten dutenek jarduera berean dabiltzanekin. Harreman horietan bereizi egin ditugu taldeko, entrenamenduko edo jarduerako kideen artekoak, eta talde kidearekikoak.

#### 4.25. TAULA Jarduera fisikoa egiten dutenek beren kideekin eta entrenatzaileekin komunikatzeko darabilten hizkuntza (%)

	Gaztelania	Euskara	Blak	Guztira
Kideekin hitz egiteko	77,6	8,0	14,5	100
Entrenatzaileekin hitz egiteko	73,2	7,7	19,1	100

#### 4.26. TAULA Jarduera fisikoa egiten dutenek beren kideekin eta entrenatzaileekin komunikatzeko darabilten hizkuntza, jarduera motaren arabera (%)

	Kideekin				Entrenatzaileekin			
	Gaztelania	Euskara	Blak	Guztira	Gaztelania	Euskara	Blak	Guztira
Kirol jarduera	72,7	9,3	18,0	100	76,6	9,6	13,8	100
Kirol arautua edo gidatua	70,2	7,4	22,3	100	73	5,0	22,0	100

Nahiz eta kasu guztietan gaztelaniaz gehiago egiten den, ikus daiteke bi hizkuntzak berdinean erabiltzea ohikoagoa dela kirol arautuan edo gidatuan banakako edo taldeko kirol jardueran baino, bai kideekin bai entrenatzaileekin.


Informazio gehiago eman diezaguketuen ezaugarri zehatz batzuei erreparatu gero, zenbait datu eraz ditzakegu, **generoaren arabera**:

Jarduera fisiko moduan oinez bakarrik ibiltzen direnen artean, hau da, gehienbat adinekoak direnen artean, esan dezakegu gehienak gaztelaniaz aritzen direla (% 77,6), aldiz, % 8 jarduten dira gehienbat euskaraz oinez ibiltzean, eta % 14,5ek bi hizkuntzak erabiltzen dituzte, berdinean.


Oro har, kirola egiten dutenei erreparatu gero (banakako kirol jarduera edo taldekoa, esaterako, korrika edo bizikletaz ibiltzea ateratzea, edo kirol arautua edo gidatua), ikus dezakegu hamarretik zazpi (% 71,3) jarduten direla kideekin gaztelaniaz, % 8,5 euskaraz, eta % 20,2, bi hizkuntzetan. Entrenatzaileekin gehienbat gaztelania darabilte (% 74,2), % 7,8 euskaraz aritzen dira, eta % 18, bi hizkuntzetan.

Egiten duten kirol jarduera zehatzari erreparatu gero, eta kontuan hartuta gazteak direla kirol arautu edo gidatu gehien egiten dutenak, honako datu hauek ditugu:

#### 4.20. GRAFIKOA Banakako edo taldeko kirol jardueran edo kirol arautua edo gidatua egiten dutenek kideekin darabilten hizkuntza, generoaren arabera




# Bizkaiko polulazioaren kirol ohiturak 2020. Ispizua , Campelo



Badirudi emakumeek gehiago erabiltzen dutela euskara bakarrik gizonek baino (% 11,6 emakumeek, % 5,2 gizonek), baina ezberdintasuna txikiagoa da bi hizkuntzak erabiltzen dituzten gizon-emakumeetan.

**Adin tarte**en artean badago ezberdintasuna.

**4.21. GRAFIKOA** Banakako edo taldeko kirol jarduera edo kirol arautua edo gidatua egiten dutenek kideekin darabilten hizkuntza, adin taldearen arabera



Hauteman daitekeenez, kideen artean komunikatzeko euskararen erabilera ohikoagoa da gazteen artean, eta nabarmendu beharra dago horien artean ere ohikoagoa dela bi hizkuntza ofizialak berdin erabiltzea.

Ez zaigu egokia iruditzen gauzak errepikatzea, baina azpimarratu egin nahi dugu antzeko zerbailetzatzen dela entrenatzen dituztenekin: 16-24 urtekoen artean % 57 aritzen dira gaztelaniaz bakarrik, % 15 euskaraz eta % 25 bietan. 25-34 urtekoetan, % 57k egiten dute talde teknikoarekin gaztelaniaz, % 9,5ek euskaraz eta % 33k bietan.

**Udalerriaren tamainak** ere badu zerikusia: Bilbon eta, orokorrean, 20.000 biztanletik gorako udal-

rrietan, kirolarien % 80 baino gehiago komunikatzen da gaztelaniaz bakarrik, ez da % 5era heltzen euskaraz bakarrik aritzen direnen ehuneko, eta % 10 eta 15 artean aritzen dira bi hizkuntzetan. Udalerri txikienetan, egoera bestelakoa da: 3.000 biztanletik beherako udalerrietan, harreman gehienak euskaraz dira (% 41), edo euskaraz eta gaztelaniaz berdín (% 29); 3.000 eta 10.000 artekoetan % 47,6 gaztelaniaz dira, % 31 euskaraz eta % 21,4 bietan.

Beste alderdi bat ere interesgarria iruditzen zaigu: berdin artean eta entrenatzaileekin erabiltako hizkuntza, kirola egiteko erabiltako espazioaren arabera.

**4.27. TAULA** Banakako edo taldeko kirol jarduera edo kirol arautua edo gidatua egiten dutenek kideekin eta entrenatzaileekin darabilten hizkuntza, kirola egiteko lekuaaren arabera (%)

		Gaztelania	Biak	Euskara	Guztira
Natur edo hiri gunea		72,9	18,7	8,4	100
Instalazio publikoak	Kideekin	67,9	22	10	100
	Entrenatzaileekin	68,9	21,2	10	100
Instalazio pribatuak	Kideekin	72,6	23,6	3,8	100
	Entrenatzaileekin	77,2	19,8	3	100

Ikus daitekeenez, kirola instalazio publikoetan egiten dutenek euskara gehiago erabiltzen dutela, bai kirola berarekin egiten dutenekin bai entrenatzaile eta begiraleekin.

### Bizkaiko polulazioaren kirol ohiturak 2020. Ispizua , Campelo



Jarduera fisikorik edo kirolik egiten ez duten emakumezkoen kolektiboa handiagoa da (emakumeen % 20, gizonetzkoen % 15). % 5 emakume gehiago ibiltzen dira oinez. Banakako kirol jardueran eta taldekakoan, eta kirol arautua edo gidatua gizonek gehiago egiten dute (% 6,2ko diferentzia).

Adingabeak beren kargu dituzten emakumeak dira denbora libre eskuragarri gutxien dutenak, eta, gainera, ezberdintasun handiagoak daude seme-alabak beren kargu ez dituztenekin bi taldeetako gizonen artean daudenak baino. Ezberdintasuna hauteman dugu jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako jardueretan: gizonen % 49k diote kirola egiten dutela, eta % 17 oinez ibiltzen dira beren denbora librean; aldiz, emakumeen % 23 ibiltzen dira, eta soilik % 20k hautatu zuten kirola beren denbora libreko jarduera nabarmen gisa. “Kirola ikusteari” dagokionez ere ezberdintasun nabarmenak daude: gizonen % 12k markatu zuten, eta emakumeen % 3k.


## Bizkaiko polulazioaren kirol ohiturak 2020. Ispizua , Campelo



5.000 BIZTANLE BAINO GUTXIAGO

**5.000** biztanletik beherako udalerririk  
Jarduera fisikoa edo kirola egitearekiko  
zuzeneko loturari dagokionez (galdera  
espezifiko batean galdetu zen), oso  
datu antzekoak daude Bizkaia osoan.  
Udalerririk horietako biztanleen **% 49k** diote  
administrazioak (udalek, Aldundiak edo  
Eusko Jaurlaritzak) sortutako aplikazio  
espezifiko bat bezalako zerbitzu zuzenek  
erraztu egingo lieketela jarduera fisikoa  
egitea.

## Bizkaiko populazioaren kirol ohiturak 2020. Ispizua , Campelo




Bizkaiko populazioa orokorrean aztertuz gero, ikus dezakegu % **17,6k** ez dutela jarduera fisikorik egiten, % **7,2k** jarduera fisikoa soilik ohiko espazioetan edo etxean egiten dute, eta % **75,1ek** espazio publikoak erabiltzen dituzte.



## **BIZKAIKO POPULAZIO SEDENTARIOAREN PROFILA**


**Emakume gehiago daude, 50 urtetik gorakoak, kirol sozializazio txikikoak, jarduera fisiko edo kirolen bat egin nahi dutela diotenak.**

# POPULAZIO AKTIBOAREN PROFILA: OINEZ BAKARRIK EGITEN DUTENAK





Gehienbat, 65 urte bete dituzten eta erretiroan dauden emakumeak. Natur edo hiri guneeetan ibiltzen dira, aire zabalean. Ohitura praktika horretan txertatutako faktore garrantzitsu bat da. Gutxienez hogeita hamar minutuz ibiltzen dira, astean 3-5 aldiz, eta aholkularitzarik gabe. Osasun ona izatea eta sasoi egotea dira oinez egiteko arrazoi nagusiak.

## POPULAZIO AKTIBOAREN PROFILA : **KIROLARIAK**




Gazteak, gehienbat, lana dutenak, askotariko gimnasia edo igeri egiten dutenak edo bizikletaz ibiltzen direnak, osasunagatik eta sasoiaren egoteko, etxetik gertu, gehienbat kanpoko espazioak erabiliz, baita kirol instalazio publikoak ere. Saioen maiztasuna eta batez besteko iraupena jardueraren araberakoak dira, baina ez dira izaten hogeita hamar minutu baino gutxiagokoak, eta, batez beste, astean bi egunez egiten dituzte. Ez da identifikatu kirolariek adierazitako instalazio behar handirik.



# POPULAZIO AKTIBOAREN PROFILA : KIROLARIAK




# POPULAZIO AKTIBOAREN PROFILA : KIROLARIAK




# POPULAZIO AKTIBOAREN PROFILA: KIROLARIAK





# POPULAZIO AKTIBOAREN PROFILA : KIROLARIAK




# POPULAZIO AKTIBOAREN PROFILA: **KIROLARIAK**




# POPULAZIO AKTIBOAREN PROFILA : **KIROLARIAK**




# POPULAZIO AKTIBOAREN PROFILA : **KIROLARIAK**



# POPULAZIO AKTIBOAREN PROFILA : **KIROLARIAK**



# POPULAZIO AKTIBOAREN PROFILA : KIROLARIAK



# POPULAZIO AKTIBOAREN PROFILA : **KIROLARIAK**

